Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

# EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN MARKOA

## IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEKO KONPETENTZIA

ISEI·IVEI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ISEI·IVEI
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN


**Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea**

**(ISEI-IVEI)**



**2021eko iraila**

# AURKIBIDEA

1. Sarrera ........................................................................................................ 5
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentziaren definizioa.......................................... 5
3. Konpetentziaren ezaugarriak ........................................................................... 5
4. Dimentsioak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak............................................. 6
4.1. Deskribapen orokorra ........................................................................... 6
4.2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentziaren dimentsioak, ebaluazio-irizpideak, adierazleak eta errendimendu-mailak ..................................................12
1. dimentsioa: Ikaskuntzarako autoezagutza ........................................................12
2. dimentsioa: Ikaskuntza-prozesuaren plangintza eta kudeaketa ..........................16
3. dimentsioa: Informazioa bilatzea, hautatzea, ulertzea, kudeatzea eta baloratzea..........................................................................................19
4. dimentsioa: Edukia sortzea eta ebaluatzea.......................................................23

## 1. Sarrera

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako Ebaluazio Diagnostikorako probak egiteko garaian kontuan hartutako alderdiak deskribatzea da dokumentu honen helburua. Hau da, Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentziari dagokion hezkuntza maila honetako ebaluazioaren Markoa aurkeztea.

Ebaluatutako konpetentzian ikasleak erdietsitako trebetasunen eta estrategien irudi bat ematea lortzea oso lan konplexua da; hori dela eta, garrantzitsua da ikastetxeetarako gai garrantzitsuenak eta erabilgarrienak aukeratzea; hau da, gogoeta- eta hobekuntza-prozesuetan modu eraginkorragoan lagun dezaketenak.

Derrigorrezko Hezkuntzaren helburuetako bat dimentsio guztietan pertsonaren osoko garapena eta garapen harmonikoa lortzea da, eta helduen bizimoduan txertatzeko prestatzea. Helburu hori lortzeko, funtsezkoa da Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia garatzea, konpetentzia hori lotuta baitago helburu horretan inplikatutako elementu askorekin, hala nola nork bere burua ezagutzearekin, motibazioarekin, asebetetze eta ongizatearekin, taldeko lanarekin, konpromisoarekin, erresilientziarekin, prozesuaren kudeaketarekin eta autoebaluazioarekin. Norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko, beharrezkoa da ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea, eta ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea.

Egungo gizarteak eta ikastetxeek, azpisistemaren zati diren heinean, sentikorrak izan behar dute, parte hartu behar dute eta XXI. mendeko erronka eta aldaketa berriei erantzun behar diete. Pertsona baten garapenean eragiten duten oinarrizko zehar-konpetentzietako bat da ikasten eta pentsatzen ikastea, inklusiotik abiatuta ikasle guztien arrakasta bermatzen duena. Aniztasunak, ekitateak, kalitateak, berrikuntzak eta ongizateak izan behar dute hezitzaileen inspirazio-iturriak. Hala, diziplina barneko konpetentzia bakoitzak Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia garatzen lagundu behar du, eta honek, aldi berean, haiek elikatu behar ditu.

## 2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentziaren definizioa

2015eko abenduan Oinarrizko Hezkuntzarako Dekretu berri bat argitaratu zuen EAEko Hezkuntza Sailak (EHAA236/2015). Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia definitzen da bertan: “Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.”

## 3. Konpetentziaren ezaugarriak

Ikasten eta pentsatzen ikasi konpetentzia bizitzan zeharreko eskakizun konplexuei aurre egiteko norbanakoak behar dituen jarrerak, ezagutzak, ohiturak eta trebetasunak garatzean oinarritzen da.

Konpetentzia giltzarriak funtsezko hiru kategoriatan antolatzen dira:

- Tresnak modu interaktiboan erabiltzea (adb., hizkuntza, teknologia).
- Talde heterogeneoetan elkarreragitea.

- Modu autonomoan jardutea.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia funtsezkoa da konpetentzia giltzarri guztiak erdiesteko eta bizitza osoko etengabeko prestakuntzarako. Testuinguru formaletan, ez-formaletan eta informaletan gauzatzen da etengabeko prestakuntza.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko xede handi hori ez da bat-batean lortuko, esku-hartze kontziente, programatu, etengabe eta ebaluagarri baten bitartez baizik.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentziak osagai ikaskuntza-prozesuak ezagutzeko gaitasuna hartzen ditu bere baitan, zeharka. Hala, konpetentziaren gaineko eraginkortasuna, errendimendua eta kontrola areagotzen ditu, haren ikaskuntza-prozesu propioak autoerregulatzearen edo doitzearen bidez. Hau da, bizitzako eremu eta egoera ezberdinetan ematen diren sentimenduen, pentsamenduen eta ekintzen gainean hausnartzea; nork bere ikaskuntza-prozesuarekiko distantzia hartzea, hau da, «kanpotik» begiratzea eta aztertzea; nor bere prozesu mentalen jakitun izatea; ikasten duen moduaren gainean hausnartzea; kasu bakoitzean aproposenak diren estrategien erabilera kudeatzea eta arautzea; autonomia eskuratzea.

Azkenik, konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik, funtsezkoa da ikasitakoa erabakiak hartzeko prozesura transferitzea eta arazo-egoerak konpontzeko erabiltzea. Hori horrela izanda, ikasitakoa askotariko egoeratara transferitzeko eta hainbat ingurunetan aplikatzeko adibideak proposatu behar dira.

# 4. Dimentsioak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak

## 4.1. Deskribapen orokorra

Jarraian, **Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia**ren dimentsioak aurkeztuko ditugu.

1. **Ikaskuntzarako autoezagutza.**
2. **Ikaskuntza-prozesuaren plangintza eta kudeaketa.**
3. **Informazioa bilatzea, hautatzea, ulertzea, kudeatzea eta baloratzea.**
4. **Edukia sortzea eta ebaluatzea.**

### 1. dimentsioa: Ikaskuntzarako autoezagutza

Dimentsio honek ikaskuntzarako autoezagutza hartzen du kontuan, eta haren baitan alderdi hauek daude:

Pertsona bakoitzak alderdi ezberdinen inguruan duen kontzientzia, hala nola ikastea errazten edo zailtzen dioten gaitasunen (afektibo-emozionalak, fisikoak eta sentsorialak, sozialak eta kolaboratiboak), autoerregulazioaren eta garapen pertsonalaren inguruan.

Ikastea errazten dioten inguruneko faktoreak, faktore materialak eta sozialak identifikatzea. Ikasteko baldintza egokiak (adibidez, ingurune eta altzari egokiak) eta laguntza eskatzeko aukera.

Baliabideak, jarrerak eta estrategiak ezagutzea, adibidez, denbora antolatzen eta planifikatzen laguntzen diguten tresnak; motibazioa, arreta, kontzentrazioa, kolaborazioa... eta gisa horretako jarrerak; eta ikastea errazten duten hainbat estrategia.

### 2. dimentsioa: Ikaskuntza-prozesuaren plangintza eta kudeaketa

Dimentsio honek ikaskuntza-prozesuaren plangintza eta kudeaketa hartzen ditu kontuan, eta haren baitan alderdi hauek daude:

Eginkizuna planifikatzea eta, horretarako, helburua eta kontuan izan beharreko irizpideak identifikatzea, faseak ordenatzea, proposamenak egitea eta ardurak hartzea.

Jarduera bakoitzerako egokiak diren estrategiak, prozedurak eta baliabideak aukeratzea, jarduera horien zailtasun maila eta berritasuna kontuan hartuta.

Prozesuan zehar jarraipena eta ebaluazioa egitea, eta, horretarako, emaitza partzialak egiaztatzea eta akatsak eta zailtasunak kudeatzea; baita irtenbide alternatiboak ematea ere, helburuarekin bat datozenak.

### 3. dimentsioa: Informazioa bilatzea, hautatzea, ulertzea, kudeatzea eta baloratzea

Dimentsio honek informazioa bilatzea, hautatzea, ulertzea, kudeatzea eta baloratzea hartzen ditu kontuan, eta haren baitan alderdi hauek daude:

Informazioa eskuratzeko estrategia egokiak erabiltzea, proposatutako helburua kontuan hartuta eta iturriak aukeratzeko orduan irizpide fidagarriak erabilita.

Informazioa kudeatzea, testu, irudi, grafiko... mota ezberdinak interpretatuz eta informazioa aztertuz, interpretatuz, antolatuz, sailkatuz eta partekatuz.

Informazioa baloratzea, eta, horretarako, fidagarria, nahikoa eta helburuari egokitua den egiaztatzea.

### 4. dimentsioa: Edukia sortzea eta ebaluatzea

Dimentsio honek edukia sortzea eta ebaluatzea hartzen ditu kontuan, eta haren baitan alderdi hauek daude:

Amaierako produktu original bat gauzatzea, eta, horretarako, aurkezpenetan askotariko baliabide materialak eta pertsonalak erabiltzea, eta ikuspuntu anitzak txertatzea.

Lana banaka zein taldean ebaluatzea, eta, horretarako, irizpide batzuk kontuan hartzea, indarguneak nabarmentzea eta ahulguneak hobetzeko proposamenak egitea. Lana errespetuz baloratzea eta gainerako talde eta norbanakoen ekarpenak jasotzea; baita proposamen berritzaileak kontuan hartzea ere.

Norbanako mailan zein taldean ikasitakoa egoera berrietara orokortzea.

Era berean, Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentziaren lau dimentsio hauetako bakoitza, honako koadro honetan islatzen diren ebaluazio-irizpideetan zehazten da:

**1. dimentsioa: Ikaskuntzarako autoezagutza**

1.1. Ikasteko dituzten gaitasunak ezagutzea eta proaktibotasuna erakustea.
1.2. Ikastea errazten dioten inguruneko faktoreak, faktore materialak eta sozialak identifikatzea.
1.3. Ikasten laguntzen dioten baliabide, jarrera eta estrategiak ezagutzea.

**2. dimentsioa: Ikaskuntza-prozesuaren plangintza eta kudeaketa**

2.1. Zeregina planifikatzea.
2.2. Jarduera eta baliabide egokiak hautatzea.
2.3. Prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

**3. dimentsioa: Informazioa bilatzea, hautatzea, ulertzea, kudeatzea eta baloratzea**

3.1. Zer informazio behar duen jakitea, eta hura lortzeko eta gordetzeko estrategia egokiak erabiltzea.
3.2. Informazioa prozesu mental ezberdinen bidez kudeatzea.
3.3. Lortutako informazioa modu kritikoan aztertzea.

**4. dimentsioa: Edukia sortzea eta ebaluatzea**

4.1. Lan-prozesuaren ondoren amaierako produktu bat gauzatzea, originala, sortzailea eta proposatutako helburuarekin bat datorrena.
4.2. Bere lan pertsonalen edo taldean egindako lanean lortutako emaitza eta beste lantalde batzuek aurkeztutakoa ebaluatzea eta adieraztea.
4.3. Ikasitakoa aplikatu ahal izateko egoera berriak identifikatzea, esparru pertsonalean zein eskolan.

***Ebaluazio-irizpide*** bakoitzak lorpen-adierazle batzuk ditu. Horiek dira dimentsio bakoitzean konpetentzia balioesteko irizpide orokorrak. ***Lorpen-adierazle*** bakoitzerako, ***errendimendu-maila edo garapen-maila*** batzuk adierazten dira. Konpetentziaren domeinu maila frogatzeko ikasleek garatzeko gai izango beharko luketen zeregin zehatzak adierazten dituzte horiek.

Jarraian, Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentziaren ebaluazio Markoan erabilitako terminologiaren adibide bat erakusten da.

**1. dimentsioa: Ikaskuntzarako autoezagutza**

Dimentsioa

**1.1. Ikasteko dituen gaitasunak ezagutzea eta proaktibotasuna erakustea**

Ebaluazio-irizpidea

**Lorpen-adierazleak**

1.1.1. Ikasteko dituen gaitasunak, trebetasunak eta mugak ezagutzen ditu (memoria, kontzentrazioa, arreta, trebetasun linguistikoak, sormena, gaitasun kritikoa eta gogoetarako gaitasuna...).

Lorpen-adierazleak

1.1.2. Bere gaitasun afektibo-emozionalak ezagutzen ditu (autoestimua, autokontrola, moldagarritasuna, pertseberantzia, ahalegina, motibazioa...).

1.1.3. Badaki bere gaitasun fisikoek eta sentsorialek (erresistentzia fisikoa, oreka, ikusmena, entzumena...) zer modutan errazten edo zailtzen dioten ikastea.

1.1.4. Ezagutzen ditu bere gaitasun sozialak edo elkarlanerako gaitasunak (lidergoa, enpatia, malgutasuna, ardurak hartzea, elkarrekin lan egiteko prest egotea...).

| Hasierako maila **(1)** | Erdi-maila **(2)** | Maila aurreratua **(3)** |
|---|---|---|
| 1.1.1.**1**. Badaki zer gaitasun, trebetasun eta muga dituen ikasteko, eta batzuetan, ingurune apropos batean horietako batzuk hobetzeko asmoa erakusten du. | 1.1.1.**2**. Badaki zer gaitasun, trebetasun eta muga dituen ikasteko, eta, normalean, ingurune apropos batean horietako batzuk hobetzeko asmoa erakusten du. | 1.1.1.**3**. Badaki zer gaitasun, trebetasun eta muga dituen ikasteko, eta, horiek hobetzeko asmoa erakusten du. |
| 1.1.2.**1**. Zereginak burutzeko dituen gaitasun afektibo-emozionaletako asko ezagutzen ditu, haien gainean hausnartzen du, eta, batzuetan, ingurune apropos batean horietako batzuk hobetzeko asmoa erakusten du. | 1.1.2.**2**. Zereginak burutzeko dituen gaitasun afektibo-emozionaletako asko ezagutzen ditu, haien gainean hausnartzen du, eta, askotan, ingurune apropos batean horietako batzuk hobetzeko asmoa erakusten du. | 1.1.2.**3**. Zereginak burutzeko dituen gaitasun afektibo-emozionaletako asko ezagutzen ditu, haien gainean hausnartzen du, eta ingurune apropos batean horiek hobetzeko asmoa erakusten du. |

Errendimendu-mailak

Hiru errendimendu-mailek ikasleen konpetentzia adierazten dute, konpetentzia horretan dituzten trebezien arabera. Jarraian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ebaluazio-irizpideen garapen maila bakoitzean ikasleengan esperotako emaitzak deskribatuko ditugu, gutxi gorabehera.

**Hasierako mailan** kokatuko genituzke ikasten laguntzen dieten haien gaitasun eta trebezia kognitiboak, afektibo-emozionalak, fisikoak eta sozialak eta haien mugak nolakoak diren jakiteko gai diren ikasleak, laguntzarekin eta modu orokorrean. Ikastea errazten duten faktoreak identifika ditzakete, ingurunearekin lotutakoak edo materialak. Taldean lan egiteak duen balioa, gelako lanetan saiatua izatearen garrantzia eta zenbait jarreraren eta gaitasunen garrantzia ezagutzen dituzte, hala nola arretarena eta motibazioarena. Ikasteko teknika eta

estrategia batzuk ezagutzen dituzte. Badakite nori eta nola eskatu laguntza, baina askotan ez dute eskatzen.

Konplexutasun maila baxuko zereginak planifikatzen dituzte epe motzera eta ertainera. Helburua, arauak edo irizpideak identifika ditzakete, eta zeregin horietan jarraitu beharreko pausoak edo faseak ordenatu. Ezagutzen dute ordenaren garrantzia, eta badakite zein den baliabideen, jardueren eta estrategien erabilera egokia, baina ez dira konstanteak haiek erabiltzeko orduan.

Badakite zer informazio behar duten, proposatutako helburuaren arabera, eta horretarako estrategia egokiak erabiltzen dituzte. Tresna ezberdinen bidez biltzen dute informazioa: elkarrizketak, galdetegiak... eta Interneten informazioa bilatzeko tresnak erabiltzen dituzte. Informazioa gordetzen, partekatzen eta berreskuratzen dute. Informazioa aztertzen dute, eta iturri batekin baino gehiagorekin kontrastatzen duten, nola egin azalduz gero. Testu jarraituak eta ez-jarraituak interpretatzen dituzte, laguntzarekin: grafikoak, mapak, taulak... Ideia nagusiak antolatzen dituzte, eta emandako jarraibideen edo ereduen arabera sailkatzen dituzte.

Adostutako irizpideak aplikatzen dituzte egindako lanetan, eta baliabide ezberdinak erabilita aurkezten dituzte. Eskatuz gero, informazioaren egilea eta jatorria aipatzen dituzte egindako lanetan. Lan bat amaitzean, aurrera eramandako prozesua eta emaitza ebaluatzen dituzte, gidatuta: jarritako helburuaren lorpen maila, emandako jarraibideak jarraitu diren egiaztatzea eta norbere lanaren zein taldeko lanaren gaineko asebetetze maila.

**Erdi-mailan** kokatuko genituzke ikasten laguntzen dieten haien gaitasun eta trebezia kognitiboak, afektibo-emozionalak, fisikoak eta sozialak eta haien mugak nolakoak diren jakiteko gai diren ikasleak, modu orokorrean. Ikastea errazten dieten faktoreak ezagutzen dituzte, ingurunearekin lotutakoak edo materialak. Taldean lan egiteak duen balioa, gelako lanetan saiatua izatearen garrantzia eta zenbait jarreraren eta gaitasunen garrantzia ezagutzen dituzte, hala nola arretarena eta motibaziorena. Zeregin berriak burutzeko aurretiazko ezagutzak erabiltzen dituzte, hala eskatuz gero. Gelan erabiltzen dituzten ikasteko teknikak eta estrategiak ezagutzen dituzte. Badakite nori eta nola eskatu laguntza, eta kasu gehienetan eskatzen dute.

Gelan proposatutako zereginak planifikatzen dituzte epe motzera eta ertainera. Helburua, arauak edo irizpideak ezagutzen dituzte, eta zeregin horietan jarraitu beharreko pausoak edo faseak ordenatzen dituzte. Zereginaren antolaketaren eta exekuzioaren gaineko proposamenak egiten dituzte, eta egokitzen zaien zereginaz arduratzen dira. Zeregina garatzeko orduan gertatzen diren akatsen gainean hausnartzen dute, eta konpontzen saiatzen dira.

Badakite zer informazio behar duten, proposatutako helburuaren arabera, eta horretarako estrategia egokiak erabiltzen dituzte. Tresna ezberdinen bidez biltzen dute informazioa: elkarrizketak, galdetegiak... eta Interneten informazioa bilatzeko tresna egokiak erabiltzen dituzte. Informazioa gordetzen, partekatzen eta berreskuratzen dute. Informazioa aztertzen dute, iturri batekin baino gehiagorekin kontrastatzen dute, eta azalpen-hipotesiak egiten dituzte. Testu jarraituak eta ez-jarraituak interpretatzen dituzte: grafikoak, mapak, taulak... Ideia nagusiak antolatzen eta laburtzen dituzte, emandako jarraibideak edo ereduak erabilita (oharrak hartzea, laburpenak, eskemak...).

Adostutako irizpideak aplikatzen dituzte egindako lanetan, eta baliabide eta adierazteko bitarteko ezberdinak erabilita aurkezten dituzte. Eskatuz gero, ikuspegi desberdinak txertatzen dituzte, eta informazioaren egilea nor den eta jatorria aipatzen dituzte haien lanetan. Lan bat amaitzean, aurrera eramandako prozesua eta emaitza ebaluatzen dituzte, gidatuta: jarritako helburuaren lorpen maila, emandako jarraibideak jarraitu diren egiaztatzea eta norbere lanaren zein taldeko lanaren gaineko asebetetze maila, eta hobekuntzak proposatzen dituzte. Ikaskideen ideiak eta ekarpenak baloratzen dituzte. Gainerako taldeen lanetatik ikasten dute eta haien praktikan txertatzen dute ikasitakoa.

**Maila aurreratuan** kokatuko genituzke haien gaitasun eta trebeziak modu argian identifikatzeko gai diren ikasleak, segurtasuna eta motibazioa dutenak, eta ikaskuntza-egoeretan topatzen dituzten zailtasunei aurre egiteko gaitasuna erakusten dutenak. Haien ikaskuntzaren emaitzak faktore ugariren araberakoak direla onartzen dute, hala nola haien dedikazioaren, arduraren eta ahaleginaren araberakoak. Gainera, euren burua erregulatzen dute (nekea, erlaxazioa...) egoera bakoitzaren arabera, eta haien jarduera zereginaren baldintzetara egokitzen dute (denbora, baliabideak, zailtasun maila...). Erronkak gustatzen zaizkie eta ez dute amorerik ematen zeregin zailen aurrean. Taldean lan egitean ekarpen erabakigarriak egiten dituzte, eta badakite gainerakoen ekarpenei balioa ematen. Ikasten laguntzen dieten inguruneko baldintzak ezagutzen eta aplikatzen dituzte; gainera, ikasten lagun diezaieketen inguruneko faktoreak identifikatzen dituzte (familia, irakasleak eta lagunak). Era berean, autonomiaz eta sormenez gauzatu ohi dituzte zereginak.

Zeregin bakoitzerako egokiak diren prozedurak eta teknikak erabiltzen dituzte. Haien ikasketa-prozesua erregulatzen eta planifikatzen dute epe motzera, ertainera eta luzera; lan bakoitzaren tamainaren eta garrantziaren arabera, fasetan banatzen dituzte, behar izanez gero.

Ongi ezagutzen dute informazio-iturrien erabilera, eta eginkizun bakoitzerako egokiak direnak identifikatzen eta erabiltzen dituzte.

Testuinguruaren eta beste ikaskuntza batzuen arabera azaltzen dute ikasitakoa, eta badakite ikasitako hori nola aplikatu eguneroko bizitzan. Erabakitzaileak dira, eta, horri esker, zeregin zailen aurrean irtenbide sortzaileak bilatzen dituzte, prozesua moldatzen dute edo laguntza eskatzen dute.

## 4.2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentziaren dimentsioak, ebaluazio-irizpideak, adierazleak eta errendimendu-mailak

### 1. dimentsioa: Ikaskuntzarako autoezagutza

### 1.1. Ikasteko dituen gaitasunak ezagutzea eta proaktibotasuna erakustea

**Lorpen-adierazleak**

1.1.1. Ikasteko dituen gaitasunak, trebetasunak eta mugak ezagutzen ditu (memoria, kontzentrazioa, arreta, trebetasun linguistikoak, sormena, gaitasun kritikoa eta gogoetarako gaitasuna...).

1.1.2. Bere gaitasun afektibo-emozionalak ezagutzen ditu (autoestimua, autokontrola, moldagarritasuna, pertseberantzia, ahalegina, motibazioa...).

1.1.3. Badaki bere gaitasun fisikoek eta sentsorialek (erresistentzia fisikoa, oreka, ikusmena, entzumena...) zer modutan errazten edo zailtzen dioten ikastea.

1.1.4. Ezagutzen ditu bere gaitasun sozialak edo elkarlanerako gaitasunak (lidergoa, enpatia, malgutasuna, ardurak hartzea, elkarrekin lan egiteko prest egotea...).

| Hasierako maila (1) | Erdi-maila (2) | Maila aurreratua (3) |
|---|---|---|
| 1.1.1.1.<br>Badaki zer gaitasun, trebetasun eta muga dituen ikasteko, eta batzuetan, ingurune apropos batean horietako batzuk hobetzeko asmoa erakusten du. | 1.1.1.2.<br>Badaki zer gaitasun, trebetasun eta muga dituen ikasteko, eta, normalean, ingurune apropos batean horietako batzuk hobetzeko asmoa erakusten du. | 1.1.1.3.<br>Badaki zer gaitasun, trebetasun eta muga dituen ikasteko, eta, horiek hobetzeko asmoa erakusten du. |
| 1.1.2.1.<br>Zereginak burutzeko dituen gaitasun afektibo-emozionaletako asko ezagutzen ditu, haien gainean hausnartzen du, eta, batzuetan, ingurune apropos batean horietako batzuk hobetzeko asmoa erakusten du. | 1.1.2.2.<br>Zereginak burutzeko dituen gaitasun afektibo-emozionaletako asko ezagutzen ditu, haien gainean hausnartzen du, eta, askotan, ingurune apropos batean horietako batzuk hobetzeko asmoa erakusten du. | 1.1.2.3.<br>Zereginak burutzeko dituen gaitasun afektibo-emozionaletako asko ezagutzen ditu, haien gainean hausnartzen du, eta ingurune apropos batean horiek hobetzeko asmoa erakusten du. |
| 1.1.3.1.<br>Dituen gaitasun fisikoen eta sentsorialen artean, badaki zeintzuek errazten edo zailtzen dioten ikastea; horri buruz hausnartzen du, eta horietako batzuk modu eraginkorrean erabiltzen hasten da. | 1.1.3.2.<br>Dituen gaitasun fisikoen eta sentsorialen artean, badaki zeintzuek errazten edo zailtzen dioten ikastea; horri buruz hausnartzen du, eta horietako batzuk modu eraginkorrean erabiltzen ditu. | 1.1.3.3.<br>Dituen gaitasun fisikoen eta sentsorialen artean, badaki zeintzuek errazten edo zailtzen dioten ikastea; horri buruz hausnartzen du, eta modu eraginkorrean erabiltzen ditu. |

| Hasierako maila (1) | Erdi-maila (2) | Maila aurreratua (3) |
|---|---|---|
| 1.1.4.1.<br>Dituen gaitasun sozialak eta elkarlanerako gaitasunak ezagutzen ditu, haien inguruan hausnartzen du, eta, gida baten laguntzaz, taldean gatazkak sortzen dituzten faktore batzuk identifikatzen ditu, prebenitzeko. | 1.1.4.2.<br>Dituen gaitasun sozialak eta elkarlanerako gaitasunak ezagutzen ditu, haien inguruan hausnartzen du, eta taldean gatazkak sortzen dituzten faktore batzuk identifikatzen ditu, prebenitzeko. | 1.1.4.3.<br>Dituen gaitasun sozialak eta elkarlanerako gaitasunak ezagutzen ditu, haien inguruan hausnartzen du, eta taldean gatazkak sortzen dituzten faktoreak identifikatzen ditu, prebenitzeko. |

## 1.2. Ikastea errazten dioten inguruneko faktoreak, faktore materialak eta sozialak identifikatzea

### Lorpen-adierazleak

1.2.1. Inguruneko faktoreak ezagutzen ditu: ikasteko baldintza egokiak (zaratarik ez egotea, ordena, argiztapena, garbitasuna...).

1.2.2. Faktore materialak identifikatzen ditu (altzari aproposak, Interneterako sarbidea, telefono mugikorraren erabilera...).

1.2.3. Bere ikaskuntza estimulatzen duten faktore sozialak-familiakoak identifikatzen ditu (ingurukoen itxaropenak, laguntza eskatzeko aukerak, harreman pertsonalak...).

| Hasierako maila (1) | Erdi-maila (2) | Maila aurreratua (3) |
|---|---|---|
| 1.2.1.1.<br>Ikastea errazten eta zailtzen dioten inguruneko faktore askoren eragina ezagutzen du, eta, eskatuz gero, horiek nola hobetu hausnartzen du. | 1.2.1.2.<br>Ikastea errazten eta zailtzen dioten inguruneko faktore askoren eragina ezagutzen du, eta horiek nola hobetu hausnartzen du. | 1.2.1.3.<br>Ikastea errazten eta zailtzen dioten inguruneko faktore askoren eragina ezagutzen du, eta horiek hobetzen hasten da. |
| 1.2.2.1.<br>Ikastea errazten dioten faktore material asko ezagutzen ditu, eta, eskatuz gero, ikastea zailtzen dioten batzuk saihesten ditu. | 1.2.2.2.<br>Ikastea errazten dioten faktore material asko ezagutzen ditu, eta, orokorrean, ikastea zailtzen dioten batzuk saihesten ditu. | 1.2.2.3.<br>Ikastea errazten dioten faktore material asko ezagutzen ditu, eta ikastea zailtzen diotenak saihesten ditu. |
| 1.2.3.1.<br>Ikasteko adorea ematen dioten faktore sozial eta familiako faktore asko ezagutzen ditu, eta, gida baten laguntzarekin, ikastea zailtzen dioten faktore batzuk identifikatzen ditu. | 1.2.3.2.<br>Ikasteko adorea ematen dioten faktore sozial eta familiako faktore asko ezagutzen ditu, eta ikastea zailtzen dioten faktore batzuk identifikatzen ditu. | 1.2.3.3.<br>Ikasteko adorea ematen dioten eta ikastea zailtzen dioten faktore sozial eta familiako faktore asko ezagutzen ditu, eta, batzuetan, ikastea zailtzen dioten faktore batzuk saihesten ditu. |

## 1.3. Ikasten laguntzen dioten baliabide, jarrera eta estrategiak ezagutzea

### Lorpen-adierazleak

1.3.1. Badaki garrantzitsua dela denbora antolatzea eta planifikatzea (agenda erabiltzea...).

1.3.2. Taldeetako elkarlanari, elkarrizketari, kultur- eta sexu- aniztasunak ematen duten aberastasunari, balio etikoei... balioa ematen die.

1.3.3. Badaki lan zorrotza, zehaztasuna eta sormena garrantzitsuak direla.

1.3.4. Badaki motibazioak, arretak, parte-hartze aktiboak eta antzeko jarrerek eragin positiboa dutela haren ikaskuntzan.

1.3.5. Badaki ikasteko teknika eta estrategia ezberdinak erabiltzeak, informazioaren tratamenduak eta IKTak menderatzeak haren ikaskuntzari mesede egiten diotela.

1.3.6. Badaki laguntza behar duenean nori eskatu behar dion, eta laguntza eskatzen duten ikaskideei laguntzen die.

| Hasierako maila (1) | Erdi-maila (2) | Maila aurreratua (3) |
|---|---|---|
| 1.3.1.1.<br>Badaki garrantzitsua dela zereginak antolatzea, eta, gida batekin, modu eraginkorrean planifikatzen ditu, garrantziaren eta denboraren probetxuaren arabera. | 1.3.1.2.<br>Badaki garrantzitsua dela zereginak antolatzea, eta, orokorrean, modu eraginkorrean planifikatzen ditu, garrantziaren eta denboraren probetxuaren arabera. | 1.3.1.3.<br>Badaki garrantzitsua dela zereginak antolatzea, eta modu eraginkorrean planifikatzen ditu, garrantziaren eta denboraren probetxuaren arabera. |
| 1.3.2.1.<br>Taldeko lanari balioa ematen dio eta, gida batekin, taldeko kide bakoitzak zeregina gauzatzearekin lotuta duen ikuspegi, rol edo funtzio ezberdinen garrantzia onartzen du. | 1.3.2.2.<br>Taldeko lanari balioa ematen dio eta, batzuetan, taldeko kide bakoitzak zeregina gauzatzearekin lotuta duen ikuspegi, rol edo funtzio ezberdinen garrantzia onartzen du. | 1.3.2.3.<br>Taldeko lanari balioa ematen dio eta taldeko kide bakoitzak zeregina gauzatzearekin lotuta duen ikuspegi, rol edo funtzio ezberdinen garrantzia onartzen du. |
